



2018KO MARTXOAK 8 - EMAKUMEAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Bizirik, libre eta batera BERDINTASUNAREN ALDE

Enpresa Batzordea

-ko Langile Batzordea

-ko Atal Sindikala

2018ko

ren

an

en bilduta, CCOOk

martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta sustatutako txandako bi orduko greba deialdiarekin bat egiten dutela hitzartu dute horrekin emakumeen aurkako indarkeria eta diskriminazio era guztien aurkakotasuna agertzeko.

CCOOK Gobernuaren pasibotasuna salatzen du berdintasun politiketan. Aktiboki bat egiten dugu mobilizazio feministarekin paro partzialekin egiturazko desberdintasunak, genero tartea eta indarkeria matxistaren aurkako paroekin, baita lan eta gizarte prekarietatea agertzeko era moduan. **CCOOK** Gobernu eta enpresei, diskriminazioa eta jarduera patriarkalekin lotuta dauden kulturaren aurka egiteko benetako neurri eragingarriak eskatzen dizkie.

2017an:

- **49 emakume** erailda genero indarkeriatatik.
- Emakumeen artean dagoen langabezia 2 milioi baino gehiagokoa da, langabeziaren feminizazio progresiboa gertatzen ari da.
- Jardunean ari diren milioi bat eta erdi emakume gutxiago daude gizonezkoekin alderatuta eta 1.6 milioi emakume gutxiago lanean.
- Emakumeek, lan beragatik, urtean 6.000 euro gutxiago jaso dute urtean.

- Denbora partzialeko kontratuen feminizazio masiboa, horien %73,86 emakumeek egiten dituzte (4tik 3).
- Emakumeek hartzen dituzte gehien bat zaintzarako baimenak (10etik 9 emakumeek hartzen dituzte), horrek euren garapen profesionala mugatzen du eta euren eskubide eta gizarte prestazioak murrizten ditu.

CCOO-K, GOBERNUARI ETA ALDERDI POLITIKOEI BERDINTASUNAREN ALDEKO ETA GENERO INDARKERIAREN AURKAKO KONPROMISOA ESKATZEN DIE:

- **Indarkeria matxistak errotik kentzeko bidean aurrera egitea**, konpromiso ekonomikoa, jarraipena eta **Genero Indarkeriaren Estatu mailako Itunean** hitzartutako neurrien ebaluazioaren betetze zorrotza bermatzea.
- **Gizarte Elkarrizketa eta Negoziazio Kolektiboa sustatzea politika aktiboekin, berdintasun planak eta ekintza positiboko neurriekin**, ezinbestekoak lan esparuko genero tarteari aurre egiteko eta gizarte babesean desberdintasunak ezabatzeke.
- Elkarerantzukizuneko neurri eta politika aktiboak piztea zaintzak emakume, gizon, gizarte eta Estatuaren artean era orekatuan banatu daitezen, Gobernuak atzeratutako aitatasun baimenerako 5. astea esaterako.
- Zerbitzu publikoak indartu, bereziki Hezkuntza, Osasuna eta Gizarte Zerbitzuetan, berdintasunezko hezkuntza eredu bat bultzatuz estereotipo sexistei aurre egiteko, baita ere heldu, menpeko eta adin txikikoei, bereziki 0 eta 3 urte bitartekoak, arreta emateko beharrezkoak diren azpiegitura publikoak bermatzea.
- Soldata bersintasan legea sustatzea eta gizarteko egitura sozial zein ekonomikoen ordezkaritza eta erabaki organo ezberdinetan aurrera egitea.
- **Lanaren Nazioarteko Antolakundearen** (OIT) etxeetako langileen lan duinaren inguruko 189 Hitzarmena berrstea, baita ere sustapen aktiboa Espainiaren aldetik OITan **lantokietan genero indarkerian aurkako Nazioarteko Hitzarmen** bat onartzeko.

CCOOK martxoaren 8an Europa mailan, **gatazkan dauden beren herrialdeetatik ihes egin behar izan duten eta babes bila datozen pertsonen egoeraren aurrean erakunde eta Gobernuen utzikeria salatu nahi du, bereziki emakume eta neskatxek jasan behar izaten duten egoera, askotan indarkeria eta jazarpen biktimak.**

CCOOK dei egiten die langileei **txanda bakoitzeko laneko bi orduko** paro hauekin bat egiteko, baita **MARTXOAREN 8a** dela eta egingo diren ekimen desberdinetan parte hartzera, emakumeek pairatzen duten laneko diskriminazioa, ekonomikoa eta gizarte mailakoa ezabatzeke dugun konpromisoa berresteko.

CCOO
euskadiko langile komisioak

#VivasLibresUnidas

MARTXOAK
8

**GREBA 2 HORAS
POR TURNO**